

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

186/2019 Foru Agindua, apirilaren 8koa, onesten duena Karrerako funtzionario izendatzea Gorka Oribe González jauna, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, ZUZENBIDEA, A1 taldea

Azaroaren 18ko 337/2016 Foru Aginduaren bidez, onetsi egin ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016rako Enplegu Publikoaren Eskaintza arautzen zuten oinarri orokorrak.

Urriaren 4ko 481/2018 Foru Aginduaren bidez, Gorka Oribe González praktiketako funtzionario izendatu zen administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, ZUZENBIDEA, A1 taldean, Katastroko kudeaketa teknikari (1405.001 kodea) lanpostura atxikita.

Oinarri orokorretako 12. paragrafoaren arabera, balioespen batzordeak praktika aldiari "Gai" eman dio azken kalifikaziotzat; hortaz, aldi hori gainditu duenez, eta oinarri horiek 14. paragrafoan xedaturikoarekin bat etorritik, bidezko da karrerako funtzionario izendatzea eta horri buruzko iragarkia ALHAOn argitaratzea.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehena. Karrerako funtzionario izendatzea Gorka Oribe González jauna, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, ZUZENBIDEA, A1 taldea, Katastroko kudeaketa teknikari lanpostua (1405.001 kodea).

Bigarrena. Karrerako funtzionario izendaturiko izangaiak hilabeteko epea du, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bere lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori hamabost egunetz luza daiteke, izangaiak hala eskatu, eta eskaera hori egoki arrazoitzen badu.

Epe horren barruan ez bada bere lanpostuaz jabetzen, salbu eta ezinbesteko arrazoiak tartean badira, galdu egingo du Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren funtzionarioa izateko eskubidea, zeina deialdiaren ondorioz lortu baitu.

Hirugarrena. Sartu berri den funtzionarioa esleitutako lanpostuari atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian; hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak,

Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duenak, 8. eta 46.1. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz –urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik–.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 8a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR